

Ekonomia solidarioaren inguruko masterra hasi da, 17 lagunekin, guztiak Latinamerikakoak

2010/04/20

Hiru hilabetez, **apirilaren 19tik uztailaren 9ra bitartean** iraungo du aurten Truke programaren 11. aldiak, Lanki Institutuak antolatua, hau ere garapen komunitarioko esperientziak trukatzeko, baina aldaketa nabarmen batekin: aurtengoa, lehenengo aldiz, **master** bihurtu da: **“Ekonomia solidarioaren garapenerako kudeaketa ekonomiko eta soziala”**. 17 lagunek hartuko dute parte master honetan, denak Latinoamerikakoak.

Brasildik 4 lagun etorri dira, Ekuadortik 3, El Salvador eta Mexikotik bina, eta bana Kuba, Argentina, Honduras, Bolivia, Nikaragua eta Perutik.



Helburuak

- Ebaluatzea. Lehen helburua da ebaluatzea zer eragin izan duen bakoitzaren herrialdean hemendik eramandako ezagutzak.
- Integratzea, motibatzea eta sentsibilizatzea bai kooperatibak, kooperatibistak, unibertsitateko ikasleak, Debagoieneko gizartea eta Euskal Herria.
- Trinkotzea. Mundukidek eta Lankik bultzatutako interkooperazio sisteman dabilzan pertsona guztiak.
- Ospatzea. Honako hau 10. aldia denez, ospatu nahi da modu berezian, abesti eta guzti.

Partaideak

- Arnaldo Garcia (El Salvador) Bajo Lempa taldea
- Brenda Elizabeth Herrera (El Salvador) Vientos Marinos
- Cecilia Araujo (Ekuador) Alandaluz
- Dorian Fernando Ruiz (Ekuador) Gruppo Salinas
- Efrain Martinez (Mexiko) Tosepan
- Gilberto Almeida (Kuba) Aguadita kooperatiba
- Jose de Souza Filho (Brasil) Copromem
- Luciano Rossini (Argentina) Creando conciencia
- Luz Marina Amador (Honduras) BYSA
- Magda de Sousa Almeida (Brasil) Coopertane
- Maria Cavalcanti (Brasil) Incubadora Tecnológica de Cooperativas Populares
- Mario Bascope Caero (Bolivia) Centro de Culturas Originarias Kawsay
- Marta Lorena Torres (Nikaragua) Asociación Centro de Mujeres Xochilt Acalt
- Medardo Shiguango (Ekuador) Pueblo Kichwa de Rukullakta
- Nelly Aliaga Zegarra (Peru) CEDEPAS
- Robson Pletsch (Brasil) Crehnor
- Rosalinda Santiz Ruiz (Mexiko) Jolom Mayaetic

Ekintzak

Truke programak hiru hilabete iraungo du, eta denbora horretan bertako kideek gogor ikasi eta parte hartuko dute hainbat elkarrizketa, bisita, hitzaldi, mintegi eta batzarretan, amaituko direnak uztailaren 9an festa handi batekin, Huhezin bertan, Eskoriatzan.